



## **Udal hilerrien zerbitzu en izaera publiko zergazkoa ez den ondare prestazioa arautzen duen udal ordenantza**

### *1. artikulua. Foru Arauak.*

Gi puz koa ko Toki Ogasunak arautzen dituen 1989ko uztailaren 5eko 11/1989 foru arauak –2019. urterako zerga neurriak onartzen dituen 2019ko otsai la ren 11ko 3/2019 foru arauak emandako idazkeran– 20.4 artikuluan xe da tu ta koa ren arabera, izaera ez-tributarioko ondare prestazio publiko tzat jo tzen direnen tarifak arautu eta exiji tzen dira ordenan tza honen bidez.

### *2. artikulua. Xedea eta Izaera.*

Honako hau ek dira tarifaren xedea: modu hertsagarrian ezar tzen diren kontraprestazio ekonomikoak, Hileta zerbi tzuak Donostia–San Sebastián Sa sozietateak per tso nifikazio pribatuaren bidez zuzenean ematen dituen zerbi tzu engatik jaso tzen direnak. zehatz esan, ordenan tza honen xede dira udal hilerrietan emandako zerbi tzu hauei dagozkien tarifak:

1. Hileta-eskubideak bizien artean eskualdatzea, guztiz edo zati batean.
2. Hileta-eskubideak mortis causa eskualda tzea, guztiz edo zati batean, izapideak titularrak hil eta urtebete baino gehiago iragan eta gero egin badira.
3. Hileta-eskubideak mortis causa eskualda tzea, guztiz edo zati batean, izapideak titularrak hil eta urtebete iragan baino lehen egin badira.
4. Hilobiratzeko eta hilobitiko atera tze ko zerbitzuak.
5. Tenplua zeremonia partikularra egiteko erabiltzea.
6. Panteoietako eta hilobietako gorpuzkiak murriztea (hilobi batekoak, lekuz aldatu gabe).
7. Gorpua gorputegian uzteagatik, eguneko edo egun-zatiko.
8. Hilerriak manten tzea, zain tze a eta garbiketa orokorra egitea.
9. Hainbat lekualdaketa egitea hilerrietan.
10. Hilobiak ostera lagatzea.
11. administrazio-lanak.
12. Gorpuzkiak udal hilerrietan lekualdatzea.

### *3. artikulua. Ordain tze ko obligazioaren sorrera.*

zerbi tzu a ematean sor tzen da tarifa ordain tze ko obligazioa. Honelakoetan jo tzen da zerbi tzu a ematen hasia dela:  
— zerbitzu hauetan: hilobiratzeko eta hilobitiko ateratzea, gorpuzkiak murriztea, gorpua gorputegian uztea, hilerrietako lekualdaketak, hilobiak ostera laga tze a eta administrazio-lanak, eskabidea aurkezten denean.  
— Hileta-eskubideak ematean: eskubideok ematen direnean.  
— Hilerriak manten tzea, zain tze a eta garbiketa orokorra egiteko zerbi tzu etan, urte bakoi tze ko ekainaren 30ean.

### *4. artikulua. Ordaintzera behartuak.*

Honakoak daude zerbi tzu a ordain tze ra behartuta:  
— zerbi tzu a emateko edo hileta-eskubideak emateko eskatzen dutenak.  
— kapera, kripta edo hilobietako hileta-eskubideen titular diren aldetik, hilerriak mantendu, zaindu, garbitu eta apain tze -ko zerbi tzu ei onura atera tzen dietenak edo zerbi tzu horien eraginpean daudenak, ekainaren 30ean.

### *5. artikulua. Ordain tze ra behartuak ez daudenak.* kasu hauetan, ez da ordaindu beharrik izango:

- Pobrezia-egoe ran hildakoak hilobira tze ko eta hilobitiko ateratze ko zerbitzuak.
- agintari tza Judizialak agindutako zerbitzuak.
- Salbuespenezko arrazoiengatik Udalak ordaindu behar dituen zerbitzuak.

### *6. artikulua. Tarifak.*

Ordenantzaren eranskinean ezar tzen dira tarifak, zenbateko finkoetan, ematen diren zerbi tzu en arabera.

### *7. artikulua. Tarifak berrikustea.*

Udalba tzak zerbi tzu engatik ordaindu beharreko zenbatekoak onartuko ditu: harrera; hilobira tze a eta hilobitiko atera tzea; gorpuzkiak lekualdatu eta murriztea, gorpua gorputegian uztea; hilerriak manten tzea, zaintze a eta garbitzea; hilobiak ostera lagatzea, eta administrazio-lanak. Horietaz gain, beste zerbi tzu hauengatik zenbatekoak ere onartuko ditu: hileta-eskubideak eman, eskualdatu eta aldatzea, eta, horren ondorioz, beren izaera juridikoarekin bat datorren dokumentuan edo zerga-ordenantzaz jasotzea, emandako zerbitzuaren, aukeratutako ku dea ke ta juridiko-motaren eta zerbitzu a ematen duen erakundearen arabera.

### *8. artikulua. Ordaintzeko modua.*

— Hilerriak mantendu, zaindu eta garbitzeko zerbitzua errolda bat osatuz kudeatzen den aldizkako zerbitzua denez, ur-

tero ordainduko da, errolda jendaurre an jar tze ko izapidean adierazitako moduan eta epean.

— Hilobiratzeko eta hilobitiko atera tzea, gorpuzkiak murriztea, gorpua gorputegian uztea, hilerrietako lekualdaketak, hilobiak ostera laga tze a eta administrazio-lanak zerbi tzu a eman eta gero ordainduko dira.



— Hileta-eskubideak emateko zerbi tzu ak izapidea egin aurretik ordainduko dira.

#### Xedapen Indargabetzailea.

Ordenantza hau eta tarifak eta ber tan arau tzen diren gainerako eskubide ekonomikoak indarrean jar tze an, ordenan tza honek arau tzen dituen gauza guztietan, Udal hilerrietan zerbitzu ak emateagatiko tasak arau tzen dituen zerga-Ordenan tza indargabetuta geldituko da. Era berean, indargabe geratuko dira udal hilerrietan emandako zerbi tzu ari dagozkion tasak arau tzen dituen ordenan tzaren zenbait zehaztapen, hala nola lagapen eta luzapen zerbi tzuak, Polloeko panteoiak 75 urterako ematea eta panteoiak lagatzea, zerbi tzu horiek arau tzen dituen zerga ordenan tza ren aldaketa indarrean sar tzen denean (udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa eta aprobe txa mendu berezia arau tzen dituen zerga ordenan tza). Orobat, errausketa labearen prezio publikoa indarrean sartzen denean, horri buruzko zehaztapenak ere indarrrik gabe geratuko dira.

#### Azken Xedapena.

Ordenan tza hau Gi puz koa ko aLDizkaRi OfiziaLean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta indarrean iraungo du indargabe tze a edo alda tze a erabaki tzen ez den bitartean.

#### ERANSKINA

Udal Hilerrietan emandako zerbitzuengatiko tarifak

— Indiziea:

1. Bizirik daudenen artean hilobiak erabiltzeko eskubideak emakidak erabat edo aldezkuz aldatzeagatik.
2. Jabea edo jabeak hil direla-eta hilobiak erabil tze ko eskubideen emakidak erabat edo aldezkuz aldatzeagatik, baldin eta izapideak jabea edo jabeak hil eta urtebete baino gehiago iragan eta gero egin badira.
3. Jabea edo jabeak hil direla-eta hilobiak erabil tze ko eskubideen emakidak erabat edo aldezkuz aldatzeagatik, baldin eta izapideak jabea edo jabeak hil eta urtebete iragan baino lehen egin badira.
4. Gorpuzkinak hilobira tze agatik eta hilobitk atera tze agatik.
5. kapera zeremonia partikularra egiteko erabiltzea.
6. Gorpuzkinak panteoietan eta hilobietan murriztea (hilobi bakar bat izanez gero eta lekualda tze rik ez bada).
7. Gorpua gorpuegian uzteagatik, eguneko edo egun 1 baino denbora gu txia go ko.
8. Hilerriak kon tse rbatu, zaindu eta garbitzeagatik.
9. Hilerrietan egindako hainbat lekualdatze.
10. Hilobiei uko egitea.
10. Administrazio lanak.
- 11- Gorpuzkinak Udalaren hilerri batetik bestera eramatea.
- 12.- Feretro lurperatze edo exhumatze gabeko hilobi irekiera

|   | Prezio      |
|---|-------------|
| <b>1.- Bizirik daudenen artean hilobiak erabiltzeko eskubideak erabat edo aldezkuz aldatzeagatik:</b> |             |
|   | <b>eur.</b> |
| - Hilobi bakuna   | 3.186,51    |
| - Hilobi bikoitza   | 4.248,69    |
| - Hilobi hirukoitza   | 5.310,86    |

|   | Prezio                     | Prezio  | Prezio  |
|---|----------------------------|---|---|
| <b>2.- Jabea edo jabeak hil direla-eta hilobiak erabiltzeko eskubideak erabat edo aldezkuz aldatzeagatik, baldin eta izapideak jabea edo jabeak hil eta urtebete baino gehiago iragan eta gero egin badira (*):</b> | <b>Gurasoak (1. Gradu)</b> | <b>Aiton-amonak - bilobak, anai-arreba - anai-arreba (2. gradu)</b> | <b>Aiton-amonak, biribilobak eta beste ahaidetasun batzuk</b> |
|   |                            |   |   |
|   |                            |   |   |
| <b>Hilobi mota:</b>   | <b>eur.</b>                | <b>eur.</b>   | <b>eur.</b>   |
| - Bakuna  | 177,03                     | 354,06  | 1.062,18  |
| - Bikoitza  | 354,06                     | 708,11  | 2.124,35  |
| - Hirukoitza edo gehiago  | 531,09                     | 1.062,18  | 3.186,51  |

(\*) Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta/edo beste egunkariren batean argitaratu behar baldin bada, horren gastua ere erantsi egingo da.



|  | Prezio                     | Prezio  | Prezio  |
|--|----------------------------|---|---|
| <b>3.- Jabea edo jabeak hil direla-eta hilobiak erabiltzeko eskubideak erabat edo aldezkuz aldatzeagatik, baldin eta izapideak jabea edo jabeak hil eta urtebete iragan baino lehen egin badira (*):</b> | <b>Gurasoak (1. Gradu)</b> | <b>Aiton-amonak - bilobak, anai-arreba - anai-arreba (2. gradu)</b> | <b>Aiton-amonak, biribilobak eta beste ahaidetasun batzuk</b> |
|  |                            |   |   |
|  |                            |   |   |
| <b>Tipo sepultura</b>  | <b>eur.</b>                | <b>eur.</b>   | <b>eur.</b>   |
| - Bakuna   | 88,52                      | 177,04  | 531,09  |
| - Bikoitza   | 177,04                     | 354,06  | 1.062,18  |
| - Hirukoitza edo gehiago   | 265,55                     | 531,09  | 1.593,26  |

(\*). Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta/edo beste egunkariaren batean argitaratu behar baldin bada, horren gastua ere erantsi egingo da.

|  | Prezio      |
|--|-------------|
| <b>4.- Hilobiratzeagatik eta hilobitik ateratze zerbitzuengatik:</b> | <b>eur.</b> |
| - Kaperak, Kriptak edo panteoietan                                   | 593,92      |
| - Hilobi eta nitxoetan - 8 urte                                      | 593,92      |
| - Kolunbariotan edo errautsontzietan hilobiratzea                    | 121,71      |
| - Jaioberriak, umekiak eta gorputz atalak hilobiratzea               | 117,36      |
| - Errautsak kaperan, kriptak edo hilobietan                          | 418,20      |

|  | Prezio      |
|--|-------------|
| <b>5.- Kaperak zeremonia partikularra egiteko erabiltzea</b> | <b>eur.</b> |
| Zeremonia bakoitzeko   | 105,98      |

|   | Prezio      |
|---|-------------|
| <b>6.- Gorpuzkinak panteoietan edo hilobietan murriztea (hilobi bakar bat izanez gero eta lekualdatzerik ez bada)</b> | <b>eur.</b> |
| - Gorpuzkin bat   | 243,02      |
| - 2 gorpuzkin   | 336,40      |
| - 3 - 10 gorpuzkin  | 420,72      |
| - 10 gorpuzkin baino gehiago  | 560,36      |

|   | Prezio      |
|---|-------------|
|   | <b>eur.</b> |
| <b>7.- Gorpua gorputegian uzteagatik, egun bakoitzeko edo egun bat baino denbora gutxiagoko</b> | 45,34       |



|   | Prezio      |
|---|-------------|
| <b>8.- Hilerriak kontserbatu, zaindu eta garbitzeagatik urteko prezioa:</b> | <b>eur.</b> |
| - Kapera, kriptak eta lau agun edo gehiagorentzako hilobiak                 | 226,69      |
| - Hiru lagunentzako hilobiak  | 170,01      |
| - Bi lagunentzako hilobiak  | 113,33      |
| - Lagun bakar batentzako hilobiak   | 56,70       |
| - Lursail bereziak (metro koadroko)   | 2,44        |

### 9. Hilerrietan zenbait lekualdatzeak (\*):

| Lekualdatzea:                              | Prezio    | Prezio | Prezio   | Prezio       | Prezio           | Prezio       | Prezio       |
|--|-----------|--------|----------|--------------|------------------|--------------|--------------|
|  | Panteoira | Kapera | Kriptara | Erraustegira | Hilerritik kanpo | Kolonbariora | Hautsontzira |
| Nitxotik (epea iragan eta gero)            | 593,92    | 593,92 | 593,92   | 73,02        | 73,02            | 392,63       | 302,20       |
| Hilobi komunetik (epea iragan eta gero)    | 593,92    | 593,92 | 593,92   | 73,02        | 73,02            | 392,63       | 302,20       |
| Nitxotik (epea iragan baino lehen)         | 767,33    | 767,33 | 767,33   | 302,04       | 302,04           | 487,56       | 365,49       |
| Hilobi komunetik (epea iragan baino lehen) | 767,33    | 767,33 | 767,33   | 302,04       | 302,04           | 487,56       | 365,49       |
| Panteoitik                                 | 767,33    | 767,33 | 767,33   | 302,04       | 302,04           | 487,56       | 365,49       |
| Kaperatik                                  | 767,33    | 767,33 | 767,33   | 302,04       | 302,04           | 487,56       | 365,49       |
| Kriptatik                                  | 767,33    | 767,33 | 767,33   | 302,04       | 302,04           | 487,56       | 365,49       |
| Kolonbariotik                              | 235,89    | 235,89 | 235,89   | 73,02        | 73,02            |              | 302,20       |
| Errautsontzitik                            | 235,89    | 235,89 | 235,89   | -            | 73,02            | 392,63       |              |

### OHARRAK:

(\*) Prezio horretan lan hauek sartzen dira:

- Hilobia irekitzea (bai abiapuntuan bai helmugan)
- Gorpuzkinak murriztea (lekuz aldatzen direnak bakarrik)
- Gorpuzkinak lekuz aldatzea
- Hilobia ixtea (bai abiapuntuan bai helmugan)
- Ordenantzaren arabera, gorp.helmuga den hilobian egon daitekeen epea

Prezio horretan **EZ** dira sartzen lan hauek:

- Lekuz aldatutako gorpuzkinak erraustea
- Lekuz aldatzen ez diren gorpuzkinak murriztea

|                                  | Prezio      |
|----------------------------------|-------------|
| <b>10.- Administrazio lanak:</b> | <b>eur.</b> |
| Lurperatze egiaztagirak          | 6,81        |
| Tituluen kopiak                  | 6,81        |

|  | Prezio       |
|--|--------------|
|  | <b>eur.</b>  |
| <b>11.- Udal hilerrien arteko gorpuzki lekualdatzeak</b> | <b>35,34</b> |



Donostia Hileta Zerbitzuak, SA  
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.

|   | Prezio |
|---|--------|
|   | eur.   |
| <b>12.- Feretro lurperatze edo exhumatze gabeko hilobi irekiera</b> | 418,20 |
|   |        |